

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, beste erakunde zein taldeen babesa behar dugu. Funtsezkoa da beraiekin elkar-lanean aritzea funtzionamendu egoki bat bermatzeko.

Ondorengoak dira gure enpresaren funtsezko elkarteak:

Bolondres taldea: bolondresak guretzat ezinbestekoak dira, gure elkartearen bihotza dira, izan ere, beraiei esker gure bezeroei kalitatezko nahi bezain beste zerbitzu eskeini ahalko diegu . Beraz, giza-talde honen eginkizun nagusia, agureekin paseoak ematera, oporretan, zinemara... joangoatea izango da. Uste dugu bolondreski gure elkartean aritzeak oso eragin onak eukiko dituela haien bizitza profesional zein pertsonalean. Alde batetik, bizitza profesionalean laguntza emango die, etorkizun batean agure egoitza batean lan egiteko asmoa izanez gero, praktika eta lan esperientzia eukiko dutelako. Bestetik, arlo pertsonalean hobeto sentituko dira, azkenean besteen bizitzak hobeagoak izatera laguntzen ari direlako, eta horrek autoestima hobetuko die. Gainera, lagun berriak egiteko aukera paregabea da , beste bolondresekin harreman onak egin daitezkeelako, eta zure koadrila bihurtu daitezkeelako. Laburbilduz, bolondresak guretzat izugarritzko garrantzia daukate.



Langileak: kirol begiraleak ezinbestekoak dira gure elkartean. Gure ekintza programaren zati nagusienetakoak dira. Kirol jarduera hauek aurrera eramateko, begiraleak behar ditugu. Begirale hauek beharrezko formazioa daukate adineko pertsonekin lan egiteko eta haiei egokitutako jarduerak zuzentzeko. Kasu honetan, pilates, luzaketak eta yoga irakasteko kualifikatuta dagoen profesionala. Oso garrantzitsuak dira guretzat, azkenean kirol jarduerak gure elkarteko bezeroentzat garrantzi handiko ekintzak direlako.

Halaber, osasun langileak behar ditugu, erizain bat, hain zuzen ere, edozein arazo egotekotan osasunarekin lotuta, prestatutako langileria eukitzeko.

Azkenik gizarte langile baten laguntza ezinbestekotzat joko dugu. Hark eramango du gure bezeroen segimentua, eta guztiz prestatuta dago hiorugarren adineko pertsonekin lan egiteko.

Sektore publikoa: Eusko Jaurlaritzako diru laguntza beharko genuke, finantzaketa behar dugulako gure proiektua aurrera eramateko. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen bekak eskatuko ditugu, gure proiektua martxan jartzeko (<https://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/ayudas-de-apoyo-a-las-personas-emprendedoras/>). Hau oso garrantzitsua da guretzat, finantzazio hau lortzeko ez bagenu, oso zaila izango zen proiektua aurrera eramatea. Gero, gure jarduerarekin aurrera jaraitzeko, laguntzak behar ditugu, azkenean elkarte bat gara, eta gure bazkideak ia dohainik datoz, oduan subentzioa behar dugu entitate publikoetatik (https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2020/elk2020/web01-tramite/es/)

Gasteizko udaletxearen laguntza ere eskatuko dugu finantzaketa lortzeko, ekintzaile berrientzat laguntzak eta formazioak eskaintzen baitituzte. Hau oso garrantzitsua da guretzat, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bezalaxe, ezinbestekoak dira proiektua hasteko. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u_72b4bbc5_160de859026_7ede. Gero, subentzioa behar

dugu gure ekintzarekin jarraitzeko, orduan Gasteizko udaletxeari eskakizuna egingo diogu. (

https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/j30-01s/contenidoAction.do?uid=u_7d53692f_13e8260983a_7fd4&locale=es&idioma=es

Hornitzaileak:

- Kirol- denda bat behar izango dugu hornitzaile bezala, gure kirol jardueretan beharrezkoak diren materialak eskuratzeko. Horregatik, "KIROLAK " dendarekin hornitzaile eta bazkide sarea eratuko dugu. Haiek gure hornitzaileak izango dira, denda horretatik materialak eskuratuko ditugu. Horrela, tokian tokiko merkataritza bultzatuko dugu, Gasteizen dagoen denda delako eta COVID-19 izurritea dela eta tokian tokiko dendek laguntza behar dutelako.



- "Muebles Pancorbo" denda izango da gure hornitzailea altzariak erosterakoan. Gasteizko denda bat da eta horrela bertako merkataritza sustatuko dugu.

Bazkideak:

Elkartearen sortzaileen artean, hau da, bazkideen artean, aliantzak egingo ditugu. Aliantza hauek nahitaezkoak dira gure ideian, taldeko kide

bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko dugu. Amaiur eta Unax alor administratiboan eta ekonomikoan adituak dira, orduan haien gaitasuna eskainiko dute diruaren eta papeleoaren kudeaketarako. Aialak, aldiz, bere kirol gaitasuna eskainiko du, eta kirolarekin erlazionatutako guztia kudeatuko du. Aitziber, ordea, kulturaren aditua denez, ekintza kultural gutiak kudeatuko eta etxera deiak eta etxez etxeko zerbitzua kudeatuko du.

Gizarte etxeak, jubiatuen zentroak eta pertsona helduen egoitzak:

Gure ekintza ezagutarazteko gure merkatuari, ezinbestekoa ikusten dugu gizarte etxeetan, jubilatutako zentruetan eta pertsona helduen egoitzetan gure proiektuaren berri ematea.

Horretarako, hitzaldiak antolatuko ditugu leku horietan. Kontuan hartuta gizarte etxeak hirugarren adineko pertsonentzat oso gustokoak diren lekuak dira, eta publiko handira ailegatuko ginateke.

Jarraitzeko, jubilatutako zentroetan hitzaldiak emango genituzke animatzeko gure elkartearen izena ematera.

Azkenik, helduen egoitzetan ere gure ekintzaren berri emango genuke. Agian gogoak dauzkate horrelako ekintzak egiteko baina ez dute aurkitzen behar duten gogoak asetzeko elkarteak. Gurea egokia izan daiteke.